

LA INDUSTRIA, LA PRENSA Y LA POLÍTICA

Nicolás María de Urgoiti (1869-1951)

Mercedes Cabrera
Alianza Editorial, Madril, 1994

Liburu hau ez da maiz argitaratzen diren horietakoa. Biografia historikoa tradizio luzea duen genero bat bada ere (gaur egungo eleberri historiko-biografikoen arrakastan islada duen zerbait, bestalde), enpresari eta ekonomi sustatzaileei buruzko ikerketak ez dira hain ugariak: historia tradizionalaren interesa ekintza politiko, militar eta intelektual handiak burutu zituzte-nengana zuzendu ohi da. Alor honetan ere biografiatuaren ekonomia eta gizartea hobeto ezagutzeko aukera ematen diguten lanak badaude, noski (hor dugu, bat aipatzearen, Georges Duby-ren *Guillaume le Marechal* lan bikaina), baina askotan historialari gutxiren interesa asetzen duten xehe-tasun eta jauregi-marmarretan galtzen dira. Beste hitz batzuetan esanda, konkretuegiak izaten dira, ez dute garaiaren irudi fidelik isladatzen, biografiak ematen digun ikuspegi “mikrotik” ekonomi eta gizarte-historiak eskaini beharko lukeen ikuspegi “makrora” igarotzeko zubiak mozten dizkigute.

Mercedes Cabreraren lan hau bes-telakoa da. Nicolás María de Urgoiti ingeniari eta enpresariaren historia idatzi du eta, biografia honek, lehenago aipatu ditugun ezaugarriak betetzen ditu: kasu honetan liburuak aukera ematen digu XIX. mendearen azken hamarkadaren eta II. Errepublikaren arteko epean sakontzeko, baina batez ere Espainiako Berrezarpenaren krisi-

-garaiko gizarte- eta politika-giroa beste ikuspuntu batetik ezagutzeko. Liburu-mota honen baliagarritasuna handia da, eta horrelakoak gutxi direla esan badugu ere, egia da azken urteotan ildo honetatik doazen lanak, zorionez, ugaritzen ari direla: artikulua eta lan motzak alde batera utzita, gertu geratzen zaigun adibide bat dugu 1989.ean Madrilgo Universidad Complutensek argitaratutako Eugenio Torres-en *Ramón de la Sota: historia económica de un empresario, 1857-1936* ikerketa. Beste bat, Katalunia aldekoa, Arturo Dixon-en *Señor monopolio. La asombrosa vida de Juan March* (Bartzelona, 1985) dugu. Bide honen indarra biografia “tradicionalak” behin eta berriro ukitu dituzten pertsonaiei buruzko ikuspegi berrietan ere soma dezakegu: hor dago, adibidez, Guillermo Gortázar-en *Alfonso XIII, hombre de negocios. Persistencia del Antiguo Régimen, modernización económica y crisis política, 1902-1931* (Madril, 1986). Kontutan hartu behar dugu ekonomia eta, hortaz, ekonomi historia, ez direla (batzuek hala uste eta aldarrikatzen badute ere) zientzia zehatz eta “gogorak”, den-dena mekanikoki azaltzen eta argitzen diguten horietakoak: norbanakoaren ekintzek eta erabakiek, gizarteak eta zirkunstantzia historikoek baldintzaturik badaude ere, badute eragina, mikroskopikoa bada ere, historiaren norabidean. Honek ez du esan nahi, inondik

ere, pertsonaia eta gertakari handien historiara itzuli behar dugula defendatzen dudarik; Carlyle-ren denbora, historialari atzerakoi askok oraindik ez badaki ere, aspaldi pasa zen. Egia da aipatu ditudan adibideak, eta hemen aztertuko dugun liburua, enpresa-gizonei buruzkoak direla, hots, kapitalisten klasean edo, nahiago baduzue, burgesian kokatutako pertsonaiei buruzkoak. Honek ez du esan nahi (gaur egungo historian geratzen bagara) langile-taldeekin antzeko lanak burutzea posible ez denik: hor dugu, esate baterako, Maurizio Gribaudi-ren *Itinéraires ouvriers* (Paris, 1987) liburu eredugarria, mende honen hasierako Turingo langileen bizitza-ibilbideei buruz, nahiz eta biografiaren generoarekin baino demografia historikoarekin zerikusi handiagoa duen lana izan. Baina gogoratu behar dugu enpresa dela ekonomia kapitalistaren oinarritzko zelula, eta beronen funtzionamendua ahalik eta hoberen ezagutzea komeni zaigula, sistema osoaren martxaren gora-beherak ulertu nahi baditugu behintzat. Enpresen funtzionamendu historikoa ezagutzeko bide bat (ez bakarra, noski; hor dugu enpresa-historia edo *business history* delakoa ere) enpresarien formazioa, nahiak eta ekintzak aztertzea izango litzateke. Enpresariaren eraginagatik, edo ikerketalanaren kalitateagatik, biografia horrek garaiko gizartea eta politika hobeto ezagutzeko aukera ematen badigu, bere balioa bikoiztu egiten dela aitortu beharko genuke.

Hau gertatzen da, hein handi batean behintzat, Cabrera anderearen lanarekin. Mercedes Cabrera Madrileko Universidad Complutenseko Zientzia Politikako irakaslea dugu, nahiz eta formazioz historialaria izan. Orain aztertzen ari garenekin lotura handia duen beste lan ezagun baten egilea

da: *La patronal ante la Segunda República. Organizaciones y estrategia (1931-1936)* (Madril, 1983). Lan hone-tan, Francisco Comín eta José Luis Delgado-rekin sinatu zuen *Santiago Albak. Un programa de reforma económica en la España del primer tercio del siglo XX* (Madril, 1989) liburuarekin batera, frogatzen du Mercedes Cabrerak gaiaren, garaiaren eta generoaren ezagutzaile ona dela. Esan bezala, liburua Nicolás María de Urgoitiren bizitzaren (1869-1951) kondaira bat dugu, nahiz eta bere bizitza “publikoa-ren” garaia izan Cabrera anderearen aztergai nagusia (1890.eko hamarkadatik II. Errepublikaren hasiera arte). Urgoiti, jatorriz donostiarra baina, istri-puz edo, Madrilen jaioa, eta ingeniaria ofizios, papergintza industrian hasi zen lanean, 1901.ean martxan jarri zen *La Papelera Española S.A.*-ren (LPE) fundatzaile eta bultzatzaile nagusi-entako bat izan zen eta, beranduago, *El Sol* Espainiako egunkari famatuaren sortzaile eta lehendakari (bere lehenengo garaian). Ibilbide hau dela medio, Urgoiti Espainiako bizitza ekonomiko, intelektual eta politikoaren erdi-gunean egon zen aipatu epealdian eta, hortaz, Mercedes Cabrerak egiten duen bezala, berau ezagutzeko beha-toki egokitzen har dezakegu.

Liburua lau atal nagusitan zatiturik dago. Lehenengoan, “Un empresario moderno en la industria del papel (1869-1914)”, bere haurtzaroa eta ikasketak deskribatzeaz gain, LPE enpresaren fundazioan eta lehenengo abiadan zentratzen da. Hau da ekonomia-aren historialariarentzat zatirik interesgarriena, bertan enpresa handi baten sorrera deskribatzen baitzaigu. Urgoiti, ingeniari-ikasketak bukatu-rik, 1890.eko hamarkadan sortu berria zen Zallako *La Papelera del Cadagua*-n hasi zen lanean, justu papergintzaren

krisia nahikoa sakona zen mementu batean. Urte horietan Urgoiti industri arlo horren ezagutzailerik on bihurtu zen eta, XX. mendearen hasiera aldean, Rafael Picavea finantzariarekin batera, garai-ko papergintzan eta, orokorki, Bizkaiko eta Espainiako ekonomian zeresan nabarmena zuten José María Arteche eta Enrique Arestiren eskutik, arazoan konponbide bezala papergintza-sektorearen konzentrazio-ahalegin handiena gidatu zuen: 1901. urtearen bukaeran fundatutako LPErena hain zuzen ere (gogoratu beste arlo batzuetan antzeko mugimenduak gertatzen ari zirela, ezagunena siderurgian gauzatutakoa, *Altos Hornos de Vizcaya* alegia, 1902.ean sortua). LPEren helburua paperaren merkaturatu estuago kontrolatzea bazen ere, hasieran pentsatzen zena baino enpresa gutxiago sartu zen batasunean; halere, bederatzik enpresak osatutako konpainia berria Espainiako arlo honetako handiena zen. Cabrerak dioen bezala:

...Urgoiti llegó a la conclusión de que, efectivamente, existía una “lucha desordenada” entre los elementos más poderosos del sector, lucha que daba lugar a un desgaste inútil de energías industriales. Cada una de las fábricas se veía obligada a ofrecer una variedad excesiva de papeles, aunque no estuvieran preparadas para ello, por ser muy pequeña la participación de cada una en el consumo general. (...)

La idea fija de Urgoiti era racionalizar la industria y abaratar el coste de producción, para poder rebajar los precios. (...) En resumen, lo que pretendía era sumar progresivamente a la integración horizontal mediante la fusión de las distintas fábricas, la integración vertical, abarcando todo el proceso, desde la producción de materias primas hasta la creación de almacenes propios de distribución... (41-42 orr.)

Enpresaren lehenengo urteak, ordea, ez ziren izan espero zen bezain oparoak. Hasierako kalkuluak, esan bezala, bertan behera gelditu ziren, batasun-operazioaren kostuak uste baino altuagoak gertatu ziren, beharrezkotzat jo ziren inbertsioak altuegiak eta LPEk zailtasun ugari izan zituen. Halere, 1910eko hamarkadarako LPE enpresa sendoa zen, eta hurrengo garaietan papergintzaren arloan gidari izan zen. Urgoitiren ahalegina, LPEko zuzendari bezala, erabakigarria izan zen.

Bigarren atala “Entre el papel y la prensa (1914-1918)” dugu. Bertan Cabrerak Urgoitiren bigarren grinaren sorrera eta garapena kontatzen digu: prentsa, argitarapen eta, orohar, kultur munduari dagokiona. Papergintzan jarraitu bazuen ere, Urgoitiren ekimena zabaldu egin zen. LPEko zuzendari-kargua utzi gabe, sektorearen lehenengo *kartel* edo enpresen arteko kompetentzia baztertzeko lehenbiziko merkatal-akordio zabalaren inspiratzaile eta bultzatzaile nagusia izan zen (*Central Papelera* delakoa), eta Lehen Mundu-Gerrak ekarritako arazo latzei aurre egin behar izan zien (lehengaien urritasuna eta garestitzea; prezioen gorakadak egunkariekin eta batik bat Espainiako prentsaren *trust* delakoarekin horren ondorioz izan zituen istiluak; egoera hau konpontzeko estatuarekin egin zen hitzarmena, gobernuak eskaini zuen “aurrerakin ateragarri” edo “anticipo reintegrable” delakoa eta honek suposatutako zituen problemak...). Baina, honekin lotuta badago ere, bigarren atal honek garrantzi handiago ematen dio Urgoitiren “abentura kulturalari”, zeinaren mugarririk garrantzitsuena argitaletxe eta egunkari baten fundazioa izan baitzen. Papergintza-munduan integrazio bertikala eragiteko asmo horrekin jarraituz (egur-

-enborretik liburu edo egunkariaren orrialderaino), 1917.ean *El Sol* egunkari famatua fundatu zuen, eta hilabete batzuk beranduago, *Calpe* argitaletxea. Ez zen hau arlo honetan Urgoitik egin zuen lehenengo ahalegina, baina bai garrantzitsuena. Urgoitiren helburua *El Sol* fundatzerakoan hirukoitza bide zen, Cabreraren ustez: alde batetik, eta esan bezala, papergintzaren integrazio bertikala osatzea, LPE-rentzat eskari finko bat ziurtatuz; bestetik, prentsa moderno baten sorrera bultzatzea, ez bakarrik alde teknikoari zegokionez, baizik eta baita “doktrina” aldetik ere: egunkari berriak progresoa eta industriagintza defendatu behar zituen, Espainiako orduko prentsa politikoaren kalitate eskasa baztertzuz; azkenik, Espainiako kultur maila igotzeko tresna bat izan behar zuen, kalitatezko informazioa eta sinadurak eskainiz. Izan ere, eta beste hainbat abizen ospetsuren artean, Ortega y Gasset bezain luma ezaguna aurki dezakegu. *Calpe*-ren zioa antzekoa zen, liburugintza arloan, noski. *El Sol* ez zen zuzenean LPEkoa, ordea, nahiz eta LPErekin zituen loturak, bai akziodunen aldetik, bai zuzendaritza aldetik (lehendakari bezala Urgoiti zuen) oso estuak izan. *Calpe*, ordea, hasiera batean LPEren adar bat izan zen, baina zuzendaritza independentea zuen. Badirudi, ordea, lotura hauek, azken finean, abantaila baino arazo gehiago ekarri ziotela LPEri, hurrengo ataletan ikusiko den bezala. Alde batetik, arazo finantzarioak: enpresa hauek ez zituzten hasiera batetik espero ziren irabaziak eskuratu, agian handigura gehiegikoak zirelako hain gutxi irakurtzen zuen herrialde batean: LPErekin zorra handituz joan zen. Beste aldetik, gainontzeko prentsak ez zuen begi onez ikusi *El Sol*-en sorrera, behin eta berriro papergintza-industriaren interesei lotuta zegoela

salatuz: kontutan hartu prentsak etengabeko tirabirak izan zituela papergintza-industriarekin eta batik batik ahalegin monopolista arbuigarriztat jotzen zuten LPErekin (egunkariak, esate baterako, paperaren inportazio librearen alde zeuden, prezioak merkeagoak izango zirelakoan; papergileak, ordea, Espainiako industri gizon gehienen antzera, protekzionista sutsuak ziren...). Cabrerak hauxe dio *Calpe*-ri buruz, eta gauza bera esan genezake *El Sol*-i buruz:

Se pretendía que la calidad de las obras editadas por Calpe no tuviera parangón. Pero, como pasó con *El Sol*, la consolidación fue lenta, el negocio también y los conflictos que suscitó, numerosos. Urgoiti había sobreestimado la capacidad del mercado del libro en lengua española (...) (131. orr.)

Hirugarren atalean –“La larga despedida de la industria del papel (1919-1925)”– Urgoitiren ibilbidearen bikoizketa honen ondorioak kontatzen zaizkigu. Urgoitiren interesak, geroz eta gehiago, prentsa eta kulturaren mundurantz zuzentzen dira. LPEn eta Espainiako papergintza-arloan oraindik hainbat ekimen garrantzitsu bultzatu zuen, hala ere: enpresa barruan, lehendik hartuak zituen beste neurri sozialekin batera, langileek kapitalaren mozkinetan parte har zezaten barne-araudi bat prestatu eta onartarazi zuen (mota honetako lehenengoa Espainiako enpresaren historian); gerraosteko krisialdi ekonomikoari aurre egiteko, *Central Papelera*-ren ordezt Espainiako papergintza-enpresa garrantzitsuenak biltzen zituzten hiru kartel eratu zituen: *Sociedad Cooperativa de Fabricantes de Papel* (fabrikentzako lehengai-erosketa eta produkzio-ahalmena kontrolatzeko), *Almacenes Generales de Papel* (salmentak antolatzeke) eta *Sociedad Arrendataria de*

los Talleres de Manipulación (SAM, paperez egindako hainbat artikuluren produkzioarako). Hau eginda, papergintza-mundutik aldentzen hasi zen eta, LPEko Administrazio-kontseiluan jarraitu bazuen ere, *Calpe* argitaletxean, *El Sol* egunkarian eta berehala fundatu zuen arratsaldeko *La Voz* beronen “egunkari anaia” herrikoia goan kontzentratu zen. Badirudi egunkarien lerro editorialak kritikak sortarazten zituela LPEko hainbat inbertsore garrantzitsuren aldetik (liberalegia zelako edo), eta Urgoitik LPEko zuzendaritza utzi zuen argitaratze- eta kazetaritza-lanetan askeago aritzeko. Garai honetan *El Sol*-ek gainerako prentsarekin zituen arazoak irauten dute (horietako batek Urgoiti duela batera ere eraman zuen), baina baita gobernuarekin ere. Gauzak ez zihozen ondo, eta gehiegizko lana zela eta, Urgoiti gaixotu egin zen, depresioak jota. Bitartean, *El Sol*-ek eta batez ere *Calpe*-k LPERentzat suposatzen zuten finantza-zama handiak sakondu egin zituen gerraosteko arazoak papergintzaren negozioan: 1921.ean, sendaturik, LPEk zuzendari-postua berronartzeko eskatu zion, eta hala egin zuen. 1925 arte enpresaren egoera hobetu eta sendotu egin zuen, baina LPEtik eta papergintzatik gero eta urrunago sentitzen zen. Gainera LPEkoek Urgoiti oso konforme uzten ez zuten hainbat erabaki hartzera bultzatu zuten. Esate baterako, Urgoitiri inposatu zitzaion irtenbidea *Calpe*-rentzat Espasa familiaren argitaletxearekin batzea izan zen: batasun honetatik sortu zen, 1922.ean, *Espasa-Calpe*. Honek guztiak, eta monarkiarekin eta Primo de Riveraren diktadorearekin gero eta kritikoa goa zen egunkarien lerroa zela-eta LPEko Administrazio-kontseiluarekin zituen desadostasunek, Urgoiti LPEtik eta papergintzatik betiko aldendu zuten.

Azkenengo kapituluak “La lucha por *El Sol* (1925-1931)” izenburu dramatiko du. Bertan Urgoitiren bizitza publikoaren azkenengo urteak kontatzen zaizkigu, depresioak berriro eta definitiboki lur jotzen duen arte. Espainiarrentzat urte zailak eta erabakigarriak dira: Primo de Riverak inposatutako diktadurak ez du Berrezarpen garairen krisialdia konponduko (are gehiago, monarkiaren oinarri konstituzionalak guztiz herdoilduko ditu, II. Errepublikari bidea irekiz) eta Urgoitik, komunikabide eraginkor baten buru bezala, bortizki jasango ditu orduko tentsioak. Edozein kasutan, Urgoiti bere egunkarrietan murgildu zen. Eta *La Voz*, nahikoa estilo herrikoia zuena, arratsaldeko egunkarien artean lehenengo bihurtu bazen, *El Sol*-ek nahikoa egunkari “elitista” izaten jarraitu zuen, beti beste egunkari liberalen atzetik.

Era en los sectores populares donde *El Sol* tenía más dificultades de expansión. El precio de la suscripción era mayor y su contenido mucho más denso intelectualmente. Alguna de las características más conocidas del periódico, como la ausencia de crónicas de las corridas de toros, le restaban público. *El Sol* no había nacido con vocación de convertirse en un periódico popular; el público al que pretendía dirigirse era un público culto, de clases medias liberales. Este público no era muy abundante, pero había que conquistar el que existiera, arrebatándoselo a otra prensa. (210 orr.)

Hala ere, *El Sol* erreferentzia bihurtu zen eta, maila intelektualean, Errepublikarako bidea prestatu zuela esan daiteke. Baina arazo bat zuen: nolabait, LPEri lotuta jarraitzen zuen. 1924.ean papergintza-enpresarekin egindako akordio baten ondorioz, *El Sol*-en mozkinak LPERentzako izan behar zuten, egunkariak LPErekin

zuen zorra kitatu arte (eta, egia esan, *El Sol*-ek ez zuen ia dibidendorik banatu bere merkatal bizitzan zehar). Zorra kitatzerakoan, gainera, LPE *El Sol*-eko hainbat akzioen jabe bihurtzen zen: gehiengoarena. Hau 1929.ean gertatu zen, hots, tentsio politikoa bere unerik gorrienean zegoenean. Primo de Riverak boterea utzi zuenean, Urgoiti eta *El Sol* aldaketa politikoaen alde agertu ziren. Hau ez zitzaien gustatu LPEko buruei, betidaniko eskuindar eta monarkikoak baitziren, eta egunkariaren kontrola eskuratzeko borroka garrantz bat hasi zen. Borroka hori Errepublikaren aldarrikapen bezperetan erabaki zen: Urgoitik kazeraritzaren enpresa ospetsua galdu zuen. Oraindik beste aldizkari bat fundatzeko indarra izan zuen, *Crisol*, baina ez zituen *El Sol*-ek izan zituen laguntza intelektualak, ospea eta arrakasta eskuratu. Politika aktiboan sartzeko ahalegin bat ere egin zuen, bloke errepublikarrak Kongresurako Gipuzkoan aurkezten zuen hautagai-zerrendan, baina honek ere porrot egin zuen. Hirurogeita bat urte zituen eta nekatuta sentitzen zen. Ia-ia ez zuen parte hartu bere bigarren egunkari-proiektuan: *Luz* (1935. arte iraun zuena). 1932.ean bertan beste depresio bortitzago batek jo zuen, bizitza publikotik desagertu zelarik.

Liburuak bertute asko ditu. Oso ondo idatzita dago eta bere erudizio-maila altua bada ere, ez da batere pisua egiten. Esan bezala, Cabrera anderea pertsonaia mugitzen den testuinguru historikoaren ezagutzaile aparta dugu, eta hori nabaritzen da. Liburu honen orrialdeetatik Berrezarpenaren garaia krisialdiko ekonomia, politika eta kultur munduan zeresan handia izan zuten izenak pasiatzen dira: Aresti, Huici, Sota, Maura, Dato, Alfontso XIII.a, Romano-

nes, Primo de Rivera, Melquiades Alvarez, Ortega, Moya, Aznar, Lorenzo... (agian aurkibide onomastiko baten falta nabaritzen da). Biziki interesgarriak dira, Lehen Mundu-Gerra garaian LPE-*El Sol* eta Espainiako gainerako prentsaren arteko eztabaidaz ematen duen ikuspuntua (prentsaren historiaz aritzen diren eskuliburuek ia beti LPEren eta Urgoitiren nahikoa irudi ezkorra eskaintzen baitute), eta LPEren eta Urgoitiren arteko gatazka egunkariaren kontrola nork eskuratzeko zuen erabakitze (prentsaren eta botere ekonomikoaren arteko erlazio ilunak azaleratzen dituena; gaurkotar izugarria duen gaia, bestalde). Iturriak ongi erabiltzen ditu, eta probetxu handia ateratzen dio Urgoititarren artxibo pribatuari. Artxibo-mota hauek oso oparoak izan daitezke eta ikertzailentzat gero eta erabilgarriagoak dira, nahiz eta egoera ez izan, oraindik behintzat, egokiena. Kasu honetan, adibidez, Cabreraz gain beste iker-tzaile batzuek artxibo hau erabili badute ere (Rey Reguillo-ren kasua, bere *Proprietarios y patronos. La política de las organizaciones económicas en la España de la Restauración (1914-1923)* liburuan, Madril 1992) momentu honetan, tamalez, guztiz *missing* dago.

La industria, la prensa y la política-k baditu, ordea, ahultasun batzuk, nire ustez behintzat. Biografien arriskuetako bat biografiatuarekin maitemintzeko erraztasuna da. Mercedes Cabrerari hala gertatzen zaiola dirudi. Agian iturri nagusi ia bakar bat (Urgoitiren artxiboa eta notak alegia) erabiltzeagatik nahitaez gertatu zaion zerbait da. Beste modu batean esanda, Urgoitiren ikuspegi baikorregia ematen digu egileak: bere gaixotasuna alde batera utzirik, ez dio apenas alde ilunik somatzen. Honekin ez dut esan nahi Urgoiti paregabeko pertsonaia ez zenik: izan

ere, liburu honek egiten duena hauxe da, ahaztuta zegoen figura historiko bat berreskuratu, bere lekuan kokatu, eskertzekoa dena. Baina duda batzuk sortzen zaizkigu. Hain garbi al zuen Urgoitik, enpresa fundatu baino lehen, LPEren bidea integrazio bertikala zela? Zein izan zen Urgoitiren ardura enpresa honek bere lehenengo urteetan jasan zituen zailtasunei dagokienez? Zer puntutaraino zen bakarrik kontsumitzailearen onurarako lan egiten zuen liberal ekonomiko bat, bere izkribuek behin eta berriro argi uzten duten bezala? Papergintza-arloan, ordea, hainbat *kartelen* fundatzaile eta bultzatzaile izan zen, eta betiko dilemarekin aurkitzen gara: behin-behineko konponbideak ziren, espainiarren paper-azpikontsumoak behartutakoak, edo industriagizonen monopolio eta irabazi errazetarako grinaren ondorio, P. Frailek bere *Industrialización y grupos de presión: La economía política de la protección en España 1900-1950* (Madril, 1991) liburuan garaiko espainiar enpresari guztiei leporatzen dien bezala? Egia da, bestalde, Urgoiti zaldun bakartiaren irudia atseginagoa egiten zaigula LPEko plutokrata eskuindarrena baino; hala ere, *beti* izan al zuen arrazoia *El Sol*-LPE auzian zehar? Pentsatu al zuen Urgoitik, benetan, *El Sol*-ek LPErekin zituen lotura ekonomikoek egunkari “independente” baten garapena bermatzen zutela? Ez dut honekin esan nahi Cabrera anderea erratuta dabilenik; edozein kasutan, ikerkuntza gehiago behar dugu garaiari eta protagonistei buruz, artxibo pribatu gehiago ireki behar dira, eta artxibo publiko gehiago arakatu. Izan ere, Ortega Spottorno Ortega y Gasset-en semeak liburua *El País*-en goraipatu bazuen ere, ez zen ados agertzen bere aita eta Urgoitiren azken tirabirei buruz Cabrerak ematen duen ikuspegiarekin. Agian egilea

liluratuegia utzi du Urgoitik. Hala dirudi 1989ko artikulua batean idatzi zuenari kasu egiten badiogu (Mercedes Cabrera, 1989, “Nicolás María de Urgoiti, biografía de un empresario”, *Papeles de Economía Española*, 39, 535-541):

Resulta difícil para quien, como yo, ha dedicado largo tiempo a leer la enorme cantidad de papeles reunidos en su archivo desprenderse de la fuerza que transmiten, de la voluntad que manifiestan y de la inmensa frustración que reflejan; resulta difícil, en resumen, prescindir de la personalidad de Urgoiti y tratar de presentar, fría y objetivamente su biografía.

Ez da harritzekoa. Esan bezala, liburuak, pertsonaiak bezala, indarra du, erraz irakurtzen da, eredugarria da. Ulertzen da madrildar intelektual ezkertiarra dugun Cabrera andereak Urgoiti aukeratzea ikerkuntza-objektu bezala: liberala, baina ez erradikala; gizarte-progresoaren aldekoa, baina garaiko hainbat sozialistaren gehiegikerietan erori gabekoa (Urgoitik bere burua antisozialistatzat jotzen zuen); euskaldun jatorrikoa eta euskal kulturaren aldarrikatzaile apala (Eusko Ikaskuntzaren Bigarren Kongresuan parte hartu zuen), baina antiabertzalea... Urgoiti betidanik Madrilerantz begiratu duten euskal enpresarien adibide tipikoa dugu (izan ere, LPE funtsean enpresa euskaldun bat bazen ere, Bilbon fundatua eta euskal kapitalistek finantziatua, laster kokatu zuen Madrilan bere egoitza zentrala; *El Sol*, garai haietan euskal enpresariak sustatutako egunkaria zela esaten bazen ere, espainiar bokazio argia zuela ikusi dugu). Urgoitik Errepublikaren zirkunstantzia gatazkatsuek bideraezin bihurtu zuten “kalitatezko” aurrerakoiaren, progresistaren irudia pertsonifikatzen du; tarteak salbatuz,

trantsizioak eta *felipismoak* (orain arte behintzat) posible eta ohiko bihurtu dutenaren paraleloa edo oso antzekoa izango litzatekeen progresistarena. Nire lagun batek esaten zidan bezala, azken finean gaur egungo *El País*-ek *El Sol*-ek finkaturiko eredua jarraitu baino ez du egin. Josep Fontanak zioen bezala, «Toda visión global de la historia constituye una genealogía del presente. Selecciona y ordena los hechos del pasado de forma que conduzcan en su secuencia hasta dar cuenta de la configuración del presente, casi siempre con el fin, consciente o no, de justificarla, (...) no se trata de una reelaboración individual de los datos del pasado a la luz de las

preocupaciones del historiador, sino de algo que se realiza colectivamente y tiene una función social.» (*Historia. Análisis del pasado y proyecto social*, Bartzelona 1982, 9. orr.). Ez dut honekin esan nahi Cabrera anderearen liburuan historiaren panorama orokor bat eman nahi zaigunik, noski. Baina bai Espainiako historiaren ikuspuntu konkretu baten zordun dela; honek ez dio kentzen, hala ere, inongo baliorik garaian eta generoan interesaturik dagoen orok irakurri beharko lukeen lan bikain honi.

Iban Zaldúa González